

**ADMINISTRACION.**

6, PINO, 6, -  
BARCELONA

**PUNTOS DE SUSCRICION**

**BARCELONA.**

En la Administracion, 6, Pino, 6, y en las principales librerías.

**MADRID.**

San Martín Puerta del Sol, 6, y en el resto de España y América en casa de todos los correspondientes de esta Administracion.

**PARIS.**

C. Borrani, Rue Saints Péres, 9 y Ha-  
vas Fabra, place de la Bourse, 8.

**LONDRES**

Eug. Micoud & C.ª 139, Fleet Street  
F. C.

**MILAN.**

Para toda Italia, Fratelli Dumolard

Pedidos y reclamaciones á la Administra-  
cion, 6, Pino, 6, Barcelona.  
Pueden hacerse las suscripciones desde  
fuera, dirigiéndose á la Administra-  
cion y acompañando su importe en  
sellos de correo.



**PERIÓDICO POLÍTICO JOCO-SERIO**

SE PUBLICA A LO MENOS UNA VEZ CADA SEMANA

LA MOSCA ROJA numero corriente cuesta 15 centimos de peseta en toda España.  
Queda absolutamente prohibido a los revendedores exigir un precio mayor por ella

**PRECIOS de SUSCRICION.**

**BARCELONA.**  
Tres meses . . . . . 8 Rs.  
Seis meses . . . . . 16 »  
Un año . . . . . 32 »

**PROVINCIAS.**  
Seis meses . . . . . 10 »  
Un año . . . . . 20 »

**ULTRAMAR Y ESTRANJERO.**  
Seis meses . . . . . 12 »  
Un año . . . . . 24 »

**NÚMERO SUELTO CORRIENTE,**  
ORDINARIO

En Barcelona, 4 CUARTOS  
En el resto de España, 15 Cs. de Pta

**NÚMERO ATRASADO,**  
En todo España, 25 Céntos de Peseta

**REGALOS A LOS SEÑ. SUSCRITORES**

Todos los suscritores recibirán el nú-  
mero enviado en una elegante cu-  
bierta, papel de color, conteniendo  
un extenso catálogo de las últimas  
novedades bibliográficas.

Además, verificándose la suscripcion por  
un año, pueden obtenerse las ventajas  
siguientes:

- 1.º—Rebaja de un 10 por 100 sobre to-  
das las obras que publique la admi-  
nistracion de este periódico, 6, Pino,  
6, Barcelona.
- 2.º—Regalo del *Almanaque de la Mosca*  
para 1882.

# ERREGIMEN FRANKISTAREN AURKAKO ZENBAIT EKINTZA ETA ERAKUNDEREN BERRI

*Jesús P. Chueca Intxusta.*

**SARRERA**

Orain dela gutxi arte, 1936.ko gerlak Nafarroari buruz emandako ohizko irudia alderdikorra izan da oso. Honen arabera lurralde honek, gizon bakar bat balitz bezala, gerla hasi baino askoz lehenago prestaketa lanetan iharduten zuen eta 1936.ko uztailaren 19.ko altxamendua ailegatu zenean Gaztelu Enparantza txapelgorriz bete zuen.

Hala ere, errealtate gordin honek ez liguke, inolaz ere, estaliarazi behar bertze Nafarroa bat zegoela. Garaile ondoan edo, hobe esanda, pean gelditu ziren nafar galtzaileena, hain zuzen ere. Azken urteetan burututako ikerketek dioskunez, ez ziren gutxi izan egoera honetan lekutu eta erreketek piztiaren magalean bertan egoteagatik izugarritzko jazarkundea pairatu behar izan zutenak<sup>1</sup>.

“Kruzado”en lurralde honek gerlaren esparru fisikoa ezagutu ez ba zuen ere, benetako aukera izan zuen eskuindar nafar sutsuek erabiltzen zituzten burruka erak ezagutzeko eta jasateko, gartzelamendu, irain eta hilketa ugarien eskenatoki bilakatu bait zen. Jakina denez, ezker gizonezko eta emakumezkoak, errepublikazaleak eta abertzaleak izan ziren jazarkunde

honen biktimak. Baina izan zen, ere, mugak eta luebakiak zeharkatuz, Gipuzkoan, Bizkaian, Aragoi eta Catalunyan bere klase edota ideien anaiekin batera burrukatzeko asmoz, alde egin zuenik. Gune honetan eta ikerketen egoera dela eta, arraz zaila dugu fenomeno honen zenbaki zehatzik ematea. Oraindik egiteke bait dago alde Nazionalari buruzkoaren antzeko ikerketa<sup>2</sup> nun behin betirako jakin dezagun zenbat nafar joan ziren Errepublikaren aldeko armadetan parte hartzera. Era berean biziki interesgarria jotzen dugu, Errepublikako urteetan errepublikazale, abertzale edo alderdi ezkertiarretan aritzen zirenetatik gerlako egoerak bortxaturik Frankoaren alde borrokatu zutenak zenbat izan ziren jakitea. Oso premiatsu diren zenbatusunezko ikerketa hauek egiten ez diren bitartean bertze bidexka batetik abiatu beharko dugu. Hori da, datozen orrialdeetan egin nahi izan duguna. Saiatu gera ikertzen nolakoak izan ziren Nafarroan Erregimen frankistaren lehenbiziko urteetan zehar gauzatu ziren ekintzak eta erakundeak.

Gerla hasi zen lehenbiziko egunetatik, Pirineotan barrena, gazte askok errepresioagatik alde eginez eta, gehienak, Errepublikaren aldeko armadara parte hartzera zihoazela, Frantzia alderat jo behar izan zuen. Endarlatzatik Anieko mugarritaraino mendi eta haran guztietako zidorrak iheslarien pasalekuak bihurtuko dira. Isabako lekuko batek kontatzen zigunez: *“Isabatarren ahaide hurbilena beti Santa Grazi izan da, ez Anso, ezta Otsagi ere. Uztailaren 18ean makina bat jendek herritik ihes egin zuen eta joan ziren guztiak hantxe babestu zituzten. Errozkari osotik 200 gazte baino gehiagok, erreketeeekin gerlara ez joatearren, alde egin zuen. Orduko Santa Graziko hauzapezak, Jauregi izena zuenak laguntza haundia eskeini zien”*<sup>3</sup>. Prentsa eskuindarrak berak, sarritan, mugalari lanetan aritzeagatik mugaondoko eskualdeetako jendearen atxilotaren berri ematen zuen<sup>4</sup>.

Hasiera batetan, mugaz bertzalde jendea eramatearen aktibitatea taldexka isolatu batzuen bidez burutzen ba zen ere, laister hauetatik batek baino gehiagok antzeman izan zuen erakunde baten beharra. Izan ere, gerla hasi zenetik lehendabiziko urtea betetzear zegoenean egituratu zuen Eusko Alderdi Jeltzaleak “Alava” sarea izendatuko zuten erakundea. Izen hau Luis Alava Souto jeltkidearengandik letorkioke zeren bera izan bait zen epaituen artean zigor gogorrena jaso zuena, heriotz pena hain zuzen ere. Hala ere, sare honen sorgunea Baztango haranean kokatu behar dugu, horko emakume baten inguruan, hain zuzen ere, Bittori Etxeberriaren bultzadaren pean antolatu zelako. Erakunde hau, Frankistek Bizkaia hartu ondoren, Santoñako hitzarmena egin orduko gorpuztu zen. Euskal Gobernua atzerriratu zenean, Euskal Armadaren errenditzearen gorabeherak jakin nahiean zegoela, 1936.ko Gorteetan Gipuzkoako deputatu abertzale izan zen Jose Lasarteren bitartez, Bittori Etxeberriarekin harremanetan jarri zen Santoñara joan zedin Euskal Gudarostea zein egoeratan zegoen ezagutzeko.

Bittori Etxeberria Agerreberek “Pepita Etxamo” izengoitia erabiliko zuenak Errepublikako urteetan Baztango EAJren idazkaritza eta EABren lehendakaritza bete zuen. Abertzaleek antolatu zituzten ekitaldi eta mitin guztietan partaide gartsua, “Euskaltzaleak” eta “Euskeraren Adiskideak” erakundeetako José Ariztimuño “Aitzol” eta Aingeru Irigarairekin batera lan egin zuen 20. garren hamarkadaz geroztik. Gerra hasi zenean, Francisca Iribarren eta Felizitas Ariztiarekin deportatu zuten, baina Baztanera itzuli bezain laister, azken honekin eta Timoteo Plazarekin hasi ziren mugaz bertzalde jendea pasatzen. Bera, ere, arduratu zen erakunde hau lau lurraldeetara hedatu zedin, bertze laguntzaileak bilatuz. Jose Antonio Agirre, Euskal Gobernuko Lehendakariak, sare honi buruz zeukan txostenak zioenez: *“Pepitarengandik jaio zen erakundea. Berak eman bait zituen lehendabiziko urratsak. Gaur harreman ororen oinarria da. Laredoko azken guneak zirenean Pepitak ezkutuko ikustaldi bat egin zuen. Berarengan zerbait probidentziala aurkitu genuen. Bitartekoak zituen eta oso ongi ezagutzen zituen hainbat*

*abertzalerekin, bera tartean zegoelarik, arriskuz josita zegoen gizaldeko ekintza bat garatu zuen.”<sup>5</sup>*

Bittoriarekin batera, lau lurraldetan, hogeitaz inguru aritu ziren. Nafarrak, Modesto Urbiola, Felicitas Ariztia, Timoteo Plaza, Pablo Etxeberria eta Ziga ahizpak ziren. Arestian aipatu dugun txostenak emakumeen errola azpimarratzen zuen erranez: “*Sare hau, ia ia bere osotasunean, emakumezkoekin eratuta dago*”. Horrela zen, neurri handi batean, zeren sarearen egiturari garrantzi handiko zereginak emakumeen esku bait zeuden. Aipatzekoak dira, Bittori Etxeberriaz gain, Delia Lauroba Yeregui, eta Itziar Mugika Irastorza, Gipuzkoan, eta Teresa Verdes, Bizkaian. Emakume hauen eginbeharra, kartzela ezberdinetan (Burgos, Larrinaga, El Dueso, Puerto S. Maria...) preso zeuden gudariek lotura izatea zen eta epaiketaz arduratzen ziren funtzionarioekin kontaktatzea. Bide hauetatik lortutako informazioa erabiltzen zuten, Euskal Gobernuaren bitartez, Enbaxada eta kanpoko ministeritziei presoen egoera eta heriotz zigorrei buruzko datuak emateko. Era horretan, Frankoren gobernuaren presiona zetzaten.

Sare honen eraginkortasunaren datu adierazgarria honako hau litzateke. Burgosko epaitegi eta koartelean lapurtutako agiriak Baionaraino eramanez ondoren, mugak joan etorrian ezkutuan zeharkatuz, 24 orduetan berriro Castellako hiriraino itzultzen zituzten. Jose Antonio Agirrek zeukan txostenari so eginez jakin ditzakegu informazio honen kopurua eta atal ezberdinak. Bi urte iraun zuen sare honek, liburuak eta aldizkariak gain, 1242 dokumentu ofiziala kanporatu zituen. Hauetan, epaitzeko aferetatik kanpo, nabarmentzen ziren Frankoren armadari zegozkionak, esate baterako, “*Mendebaldeko Pirineotako gotorleku frankistak*”, “*Euskal mugan burutzen ari diren gotorleku eta eraikilanak*”, “*Isasportuetako untzien sarrera eta irteeraren mugimendua*” eta abar. Azken batean erakunde honen kideek gizapolitiko edota militar interesik zuten datu guztiak bereganatzen zituzten informazio eta espiotzaren egitura bat osatuz.

Sare honen bertze eginbeharra, Frankismoarengandik ihesian zebiltzaten gizabanakoak mugaz bertzalde eramatea izan zen. Muga zeharkatze hau beti oinez egiten zen Sara edo Aldudes alderat jendea eramanez. Horrela oroitzen dira Felicitas Ariztia eta Timoteo Plaza: “*Bietara joaten ginen Sarara edo Aldudera. Sara aise urrunago baino segurago. Zazpi zortzi ordu behar ziren eta hiru linea gainditu behar genituen: karabineroak, falange eta reketes. Nik ez nun sentsitu beldurrik, ez dakit zertaz baina inkonsziente edo zer baina hala zen*”.<sup>6</sup> Horrela, ez bakarrik buruzagi eta militante abertzale anitzek, baita bertze joera politikokoek ere, Frankismoaren hatzaparretatik ihes egitea lortu zezaketen. Modesto Urbiolaren hitzetan: “*Jende ugari eramanez Frantziara. Leku guztietatik zetorren jendearekin genbiltzan. Nahiz eta gure sarea alderdiarena izan bertze talde askotako jendea lagundu eta talde hauen agiri anitz ere berraldatu genuen. Oroitzen naiz Pasionaria, Negrin eta abarrentzat eskutitz mordo bat pasatu genuela. Errotxapean topagun bat geneukan. Hortik Baztanera joaten ginen. Baztanen bertze jendearekin mugaz haruntzara. Egun batez, familia bereko zazpi pasa genituen. Frantziatik, ostera, sendagaiak eta arropak presoendako ekartzen genituen. Nire etxean, hauendako medizina eta arropaz beteta gela bat geneukan*”<sup>7</sup>.

Erakunde honek 1940.ko Abendua artio iraun zuen. II. mundu-gerlax Frantzian sortarazitako zatiketa zela medio, soldadu alemaniarrek Pirineo Atlantikoez jabe egin ziren mugako zeharkatzeak oztopatuz. Honetaz gain Naziek Parisen Euskal Gobernuaren egoitza hartu zutenean “Barne Zerbitzu”ren txostenak eskuratu zituzteneko Frankoren poliziaren eskutan utzi zituzten. Honen ondorioz, bi hilabetez, 1940ko abendutik 1941.ko urtarila bitartekoan sare osoa deseginik suertatu zen. Atxilotu zituzten 28.021 prozesatuak izan ziren. Lehendabiziko epaiketari, Fiskalak 19 heriotz zigor eskatu zituen arren 1942.ko berrikustapen prozesuan Epaitegi gorenak

zortzira mugatu zituen, azkenean bat bakar hau, Luis Alava, izango zen. Hau 1943ko maiatzaren 6an hil zuten bitartean bertze kondenatuek 30 urtetik 6 urte arteko gartzela zigorrak jasan behar izan zituzten<sup>8</sup>.

Sare honen antzeko bat Nafarroako komunistek antolatu zuten. Bere helburua Iruineako espetxea eta San Kristobal gotorlekuan zeuden presoek laguntza emateaz gain PCEren antolamenduari ekitea izan zen. Erakunde hau egituratu samarra zegoenean polizien eskuetan erori zen, 1942an hain zuzen ere. Harrapatuen artean Dora Serrano, Maximo Gomez, M. Gil... eta abar zeuden.<sup>9</sup> Hala eta guztiz ere komunisten ahaleginak, neurri batean kanpotik iristen ba ziren ere, oso nabarmenak izan ziren urte hauetan zehar, bertze mugaondoko eskualdeek bezala Nafarroak ere aukera izan bait zuen Komunistek gertutu zituzten gerrilarien ekintzak ezagutzeko.

Izan ere, bigarren mundu-gerratea amaitzeaz zegoenean, komunistak Espainiaren txanda izango zelakoan Pirineoz harantz hasi ziren talde gerrilari ugari antolatzen penintsulara etortzeko asmotan. Gertaerak oso fite zihozten eta Tolonen eta Normandian egindako lehorreratzei esker Frantziako hiriburuaren askapena eta alemaniarren armadaren hondamena berehala ailegatu ziren, Pirineotako barrutiak ere alemaniarrez libre gelditu zirelarik. Mendikate honen inguruan eta barnean jatorriz espainol ziren "makisard" aunitzek, nazioarteko abagadunea ikusita, Diktadura frankistaren aurkako erasoak egiteko gune egokiena zela pentsatu zuten. Eritzi berberetako zen gerrilari hauen zuzendaritza zeren data hauetan "*Batasun Nazionala*" delakoak Perpignanen sinatutako deia baten bitartez "*Espainia birkonkistatzeko burrukaren ordua ailegatu*" zela aldarrikatzen zuten<sup>10</sup>.

Zenbait egun beranduago, Frantziako erresistentzian parte hartu izan zuten zenbait espainiar makien buruzagiek, Toulousetik Xuberoa eta Baxenafarroako herrixka batzuetara, St. Grazi eta Esterenzubirat alegia, joan ziren. Muga ondoan, Aezkoa eta Erronkari pare parean kokaturik dauden herri hauetatik, bigarren gerla mundialaren bitartean, bertako "passeurs" edo mugalariek Alemaniarrangandik ihes egin zutenei muga zeharkatzen laguntzen zieten. Ipar Euskadiko eskualde honetan, 1944.ko urrian Arango haranean barrena egindako maki inbasio ospetsuarekin batera bertze zutabe bat sartuko da Frankoren pean zeuden lurraldeetara.

Pirineotako haran eta basoetan 10000 gerrilari inguru zeudenetik 700 Oloron, Maule eta Ustaritzen artean, Paben egoitza zeukan "*Batasun Nazionala*"ren batzorde baten zuzendaritza-pean, kokatzen ziren. Pabeko batzorde honek Arango inbasio garrantzitsuenarekin batera, Erronkari, Zaraitzu eta Iratiko basoan zehar gerrilari sarrera bikoitza gertutu zuen. Horrela kontatzen digu inbasio honen partaide izan zen Jazinto Otxoak: "*Aliatuek errandakoaz, hau da, mundu osoan Faxismoa desagertarazteaz, mesfidantza haundia geneukanez, agitazio eta burruka, nahiz eta txikia izan, Espainian bertan piztutzea lortuko ba genu, hau elkartasunaren zioa izango litzatekela eta laguntza emango ligukela bururatu zitzaigun eta nire ustez hau zen bilatzen zena. Zaila ikusten genuen gerokoa, Aliatuak bere herrialdetan faxismoa irabazi ondoren ez zeuden prest burrukarekin jarraitzeko. Frantziako makiekin hitz egitean, batzuek esaten zuten, lehendabiziz, Frantzia, gure aferak konpondu behar ditugu eta gero gogoak gelditzen ba zaizkigu, ikusiko dugu. Ustaritzen egun batzuk egon ondoren, zenbait kamioietan mugaz gertura eramán gintuzten eta hortik armez eta motxilaz zaturik gau hartan bertan muga zeharkatu genuen. Fusil amerikarrak generamatzen eta onak izan behar omen zuten tresna hauek, kargadore arras majua zeukaten, ez dakit zenbat bala sartu nituen. Gu 50 inguru ginen. Gure helburua ahalik eta barnean sartzea, gerrilak sortaraztea zen eta gero bakoitzak inizatibak har zitzala, baina ez genuen leku zehatzik joateko, nun gure joatea akitutzat eman*"<sup>11</sup>.

Urriaren lehenbiziko egunetan, inbasioa bi taldetan burutu zen. Bata, 200 gerrilariz osaturik, Esterenzubitik abiatu zen eta Iratiko basotik sartuz bi taldeketa zatitu zen Bentarte, Azpegi, Urepel eta Berdaitzeko lepoetan barrena hegoalderatzeko. Bestea, 300 partaidez eratuta, Ste. Grazi eta Larrautik, Belagoa eta Zaraitzun barrena, Aragoi aldera jotzeko asmoz. Helburu hauek ez zirenen bete muga ondoko herri guztietan Frankismoak paratutako indarrei oso abudo aurrez aurre egin behar izan bait zieten. *“Hauek denak “Arrosario igandean” etorri ziren. Egun hartan hasi ziren makiak pasatzen. Ni gogoratzen naiz gorriak ginenok egun osoz penaz beterik. Zeren, noski itxaropen haundia zen. Armaturik datozela, Frankoren kontra datozela! Dana erabakita zegoela pentsatzen genuen. Bai zera! Jende hura gauzak gori gorian zeudela eta herria beraiekin altxatzera zihola pentsatuz zetorren! Bai zera! Hemen izugarritzko beldurra genuen. 30 urte igaro artio ez gara ausartu mintzatzera. Urria osoan euria egin zuen. Castillonuevoraino sartu ziren eta gero gibelerat jotzeko egoera latz eta penagarrian itzuli ziren. Eta ezin genuen deus egin laguntzeko. 36.koa gertatu zenean nolabaiteko laguntza izan zen, makikoan, ostera, ezinezkoa zen gorri guztiok fitxaturik geundelako eta garai hartan buruak aise eta erruz erortzen ziren. Arront zaila da, bizi izan gabe, egoera hau konprenitzea. Gure beldurra ez duzue sekulan ulertuko. Eskuindarrek ere ikara zeukaten. Askok, makiak pasatzen ari zirela jakin zutenean, lo egiterat bertzeen etxetarat joan ziren haiek egindako makurkerietaz kontuak eskatzera zetozenaren beldurrez<sup>12</sup>.*

Bi astetan zehar makiak eta goardia zibil eta soldaduak elkarren aurka ibili ziren, bi aldeetan hildakoak suertatu zirelarik. Sarreraren lehendabiziko egunean, Lazako bortuan bi goardia zibil eta polizia bat hil ziren. Hortik sartu ziren makiak, Zotrabeako mendixka gaindituz, Abaurregainaraino arribatu ziren. Bitartean, bertze talde batek, Erronkari haranatik atera barik, Infanteriaren destakamendu bati erasotu zion 5 hildako sortaraziz. Hortxe bertan, ere, 6 maki hil egingo ziren. Honez geroztik Bidangotzen pareta baten bitartez zatiturik gelditu zen hilerriaren zati bati “maki”ena deituko zioten. Talde ezberdinak Igaletik Ollateko leporaino mugituko dira eta zenbait egun beranduago talde berri batzuk Arragoitiko lepoa zeharkatuz Isabako ingurunetara arribatu ziren. Bertze talde batzuk, ordez, Mendebalderuntzeko pasalekuak profitatuz, Belate gainditu ondoren, Iruinera hurbildu ziren eta handik, 20 kilometrotara, Olaguen, Goardia zibilak gehienak atxilotu zituzten. Erasoaldi sakonena Aralarko mendikateraino sartu zen, eta nahiz eta ekinkide batzu atxiloturik izan, bertze batzuk, berriz, 1945.ko udazkena heldu artio Gipuzkoako Aralarren ihardungo zuten. Hala eta guztiz ere, hauek oso adibide banakakoak izango ziren, zeren, herriaren aldetik izan zuten laguntza murriztari, 1936.etik aitzinat Frankismoak mugaondoko eskualdeetan ezarri zuen itzelazko egitura errepresiboa gehitu behar bait zaio. Hau zela eta, maki gehienek, berriro mugaz bertzaldera itzultzea erabaki zuten. *“Bidasoako inguruetatik atera gabe, egun batzu ibili ondoren, elikagairik barik gelditu ginenean, guretako bi janaria eskuratzera jeitsi ziren. Denbora gutxi barru tiroketa bat entzun genuen eta goitik hasi ginen erantzuten, dena den, bietako bat hortxe erori zen”<sup>13</sup>.* Hauxe Eibarko militante sozialista Angel Loidi Erkizia zen. Iparra, Catalunya eta Aragoiko kanpainetan burukatu ondoren, gerra bukatuta Argelés eta Gurseko kontzentrazio esparruetan egon zen geroxeago Frantziako erresistentzia parte hartuz<sup>14</sup>. Ondorengo tiroketetan Isidoro Granado eta Eugenio Sanz hil egingo zituzten<sup>15</sup>. Hauen burkide zen Jazinto Otxoak kontatzen zuenez: *“Nora joan gintezken, leku guztietatik erasotzen gintuzten eta, ezin genuen zuhaitzitik atera. Egia errateko, agertzen ginen leku guztietan harrapakin erraza ginen. Elurra hasi zen, goseak jota geunden eta ea nun izkutatzen ginen, nun jan eta nun lo egiten genuen bertzerik ez gintuen kezkatzen. Egun larri larriak izan ziren. Mendian hartu gintuzten, Igantzin, Frantzia aldera itzultzen ginenean. Donostian epaitu gintuzten eta 30 urte zigorra jaso genuen. Neretako heriotz zigorra eskatzen zuten, San Kristobaltik ihes egiteagatik eta muga pa-*

*satzeagatik, baina azkenean, 30 urtetan utzi zuten. Hauei gehitu behar zitzaizkien bertze 30, Kartzelatik ihes egin baino lehenago betetzen ari nintzenak hain zuzen ere*"<sup>15</sup>. Jazinto Otxoa, San Kristobal gotorlekutik bi aldiz ihes egin ondoren, azkena 1944.ko irailean, askatasunean bi hilabete exkax egon ondoren kartzelara itzuli zuten 1964. arte. Guztira, 1936.z geroztiko urteekin, 26 urte eta 10 hilabete zigorpean.

Bera bezalaxe inbasio hauetan eta ondorengo urteetan noizean behin egingo ziren ekintzetan parte hartu zuten ekinkide gehienak PCEkoak izan ziren, nahiz eta, lehen ikusi dugun bezala, anarkista, PSOE edota UGTko hainbat militante ere izan. Halaber, gerrilari buruz emandako ohizko irudia, hots, populazioatik urrun eta arrotzarena arront hedaturik bada ere, talde askotan nafar errepublikar eta komunistek parte hartu zutela erran beharra dago. Adibidez, 1944.ko aipatutako inbasioan gidari bezalakoak, Tomás Gale "Txikin" eta Ubaldo Sola Calvok parte hartuko zuten. Lehena, Gardekoa zen, igeltsari eta ugetista. 1936.ko uztailearen 18.a ailegatu zenean, Iruineatik ihes egin zuen Errepublikaren armadan burrukatzeko. Bigarrena, Uztarroztarra, lanbidez artzai. Gartzelan, zenbait urte igaro ostean, bigarren mundu-gerratean aliatuen aldeko mugalari bezala aritu zen. Hauekin batera, talde gerrilarietan, Erronkariko ezkertiar multzo bat, -Andrea Rodrigo, Germán Carriquiri, Angel Galé, Roberto Gayarre, Vicente Abadía...-zegoen<sup>16</sup>.

## NAFARROAKO KONTSEILUA. Saio baterakoi bat.

Hala ere, ez ziren, bakarrik, komunistak erregimen aldaketaren zain eta itxaropentsuak azaltzen zirenak. Atzerriko leku eta giro politiko guztietan Aliatuen garaipenak Frankoren hondamena berarekin ekarriko zuelako ideia oso hedaturik bait zegoen. Diktadura frankistaren ustezko probisionaltasuna zela medio, erbestera aldaketa politiko berri honi aurre egiteko programa eta instantzia politikoak prestatzen hasi ziren.

Izan ere 1945.ean Mexikon zeuden alderdi ezberdinetako nafar batzuek atzerrian zegoen Errepublikako lehendakari, Jose Giral-ekin, mintzatu ondoren beharrezkoa jo zuten Gobernu horren aurrean Nafarroa ordezkatzeko erakunde bat martxan ipintzea. Asmo hau jarraituz, erbestera zeuden Foruzko deputatu ohiak, Constantino Salinas, Rufino García Larrache, David Jaime, Javier Domezain, eta goi mailako teknikari batzuekin, Juan Ignacio Irujo, Pablo Archanco, Santiago Cunchillos, "Nafarroaren Kontseilua" eratu zuten. Demokraziaren alde zeuden nafarren ordezkotasun politiko amankomunaren beharra ez zen gauza berria. Zeren eta 1936-1937.ko bitartekoan, Bilbon, zenbait buruzagi politiko nafarrek (Jesús Monzón, Vicente Navarro, Goñi Urriza, Emilio Salvatierra) Errepublikaren aldeko nafar diputazio bat osatu bait zuten. Bilboko galpenarekin desagertuko zen erakunde hau euskal gobernuaren babesarekin nafar errefuxiatuen laguntzaz arduratu zen gehienbat.

Mexikon sortutakoak, berriz, bere lehenbiziko agiriaren arabera, funtzio zabalagoak bete behar omen zituen: *Kontaktua honen bitartez, oinarri demokratikoei eutsiz, ezinbestekotzat hartzen dugu zuei jakinaraztea nola gorpuztu den kontseilu hau. Gure foruzko administrazioaren ezaugarri bereziak, Nafarroari altxamendu militarren prestakuntza eta ondorengo garapean emandako zeregina, gerrate bitartean jokatu zuen errolarengatik lurralde honi eman behar omen zaion zigorraren aurka egotearen premia, eta azkenean, gure herriaren kontzientzian hain bizirik azaldu ziren etengabeko gogo autonomikoen ukaezinezko errealitateak, zirkunstantzialki Mexikon bizi ziren nafar askori, Nafar Demokrazia, atzerrian nahiz barnean, ordezkatu eta zuzenduko zuen erakunde ofizial baten beharrean pentsarazi zioten*<sup>17</sup>.